

3. BAZKIDEAK

Gure enpresarako hainbat bazkide izango ditugu. Lehenik eta behin, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gurekin bat datorren ideiak partekatzen dituzten bazkideak izatea. Uste dugulako, bazkideak aukeratzeko orduan, gure enpresako baloreak lehenatasuna izan behar dutela. Horregatik erabaki dugu, honako hauek izango direla:

- Birziklapen fabrikak:** Guk sortutako edukiontzietatik eta ingurugiroan jasotako zigarro muturrak birziklapen fabrika batera bidaliko ditugu. Fabrika horretan zigarro muturraren elementuak eta konposatuak banatuko dituzte. Alde batetik, ateratako paperarekin eskerrak emateko gutunak sortuko ditugu. Guk sortutako gutunak berezitasun bat izango dute haziaz eta paper birziklatuaz eratuta egongo dira, behin zure etxera paketea heltzerakoan zuhaitz edo landare bat landatu ahal izateko. Bestetik ateratako kotia gure sudadera sortzeko erabiliko dugu.



- Ehungintza:** Lehen aipatu dugun bezala, birziklatutako kotoiarekin eta beste material batzuekin sudaderak produzituko ditugu. Baina bakarrik zigarro muturretako kotoietik ezin ditugunez sudaderak eratu beste material batzuk beharrezkoak izango dira. Aukeratutako beste materialak ere gure planeta zainduko dute.



- Bolondresak:** Gure proiektuarekin bat datozen pertsonak aukera izango dute gurekin lan egiteko. Batez ere, honek lagundu ahal die kontzientzia izateko eta gure ideak partekatzen dituzten jendearekin bateratzeko.

